

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2,1 milioi euro onartu da ibilgailu iraunkorragoen entseguetarako azpiegitura bat eraikitzeko

Diru-laguntza Nasuinsari eman zaio Arazuri-Orkoien industrialdeko sozietate kudeatzaile gisa, eta instalazioa bertan kokatuko da

Lunes, 13 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak erabaki bat onartu du gaurko bilkuran eta, haren bidez, Enpresako zuzendari orokorrari baimena ematen zaio Nasuinsa sozietateari 2.150.000 euroko diru-laguntza eman diezaion. Diru hori, Arazuri-Orkoien industrialdean, iraunkorragoak diren ibilgailu elektrikoentzako entseguetarako azpiegitura bat eraikitzeko bideratuko da.

Azpiegitura horri esker, ibilgailu iraunkorrak espermentatu, homologatu, garatu eta hobetuko dira, Nafarroari lehiakortasun-abantailak emateko xedez arlo horretan lehiatzen duten beste erkidego batzuekin alderatuz.

Diru-laguntza Nasuinsari eman zaio industrialdeko sozietate kudeatzaile gisa, eta Volkswagen Navarra SArekin lan egingo du. Azken enpresa horrek emango ditu lursail egokienak kokatu ahal izateko eta, trukean, gastu guztian duen partaidetzarekin proportzionala den erabilera pribatua izango du. Lankidetzan horren barnean entseguko azpiegitura horren sorrera dago, eta azpiegituren arloan hezkuntza eta prestakuntzako jarduerak sartu ahal izango dira azpiegitura-arloan, eta baita izaera berritzaileko beste proiektu zehatz batzuk ere.

Diru-laguntza, garraio-sektorean eraginkortasun energetikoaren CO2 isuriak murrizteko xedek lortzeko Nafarroako Gobernuak sustatu dituen ekimenen barnean sartzen da. Haien artean nabarmentzen dira: Nafarroa 2020 Ikusmuga III. Plan Energetikoa, klima-aldaketaren aurkako Borroka Plana eta Nafarroako Ibilgailu Elektrikoaren Plana. Gainera, Moderna Planean, Ekonomia Berdea izenekoaren barnean, "ibilgailu iraunkorra" etorkizuneko estrategia-arloetako baten moduan zehaztu da.